



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prentsa-oharra

2013. urteko Aurrekontuei buruzko azalpenak emoteko batzordeak. Gaur Gizarte Ekintza, Ingurumen eta Ekonomi Sustapen Sailei buruzkoak egin dira

Bilbon, 2012ko azaroaren 26an

Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako Foru Diputatu andrea, Iosu Madariaga Ingurumeneko Foru Diputatu jauna eta Imanol Pradales Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatu jauna izan dira gaur goizean, azaroaren 26an, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean azaltzen Foru Aldundiaren 2013. urteko Aurrekontuen Proiektuaren arabera bakotxaren Sailari jagokon aurrekontuaren nondik norakoak.

Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako Foru Diputatu andreak bere Sailaren aurrekontuen aurkezpena egin dau eta adierazo dau bere Sailaren aurrekontuak Aldundiak guztira 2013. urerako dauen aurrekontuaren %43,5a hartzen dauela. Sailaren guztirako aurrekontuaren (453 milioi euro) %70a hartzen dabe adinekoei, mendekotasunari eta desgaituentzako laguntzei bideratutako laguntzek.

Ardanza Diputatu andreak berak esan dauenaren arabera Aldundiak erabagi dau “gizarte zerbitzuak mantentzea eta lerro gorriak ez zeharkatzea.” Diputatu andrearen ustez “Agiri-agirian geratzen da gure apustua joan dala gure Lurraldeon egoerarik ahulenean dagozan pertsonen alde: adinekoak, mendekotasunen bat daukienak, umeak edo desgaitasunen bat daben pertsonak.”

Gizarte Ekintza Sailaren aurrekontuaren partidarik handiena adinekoei bideratuta dago. Aldundiak plaza kopuru berari eusten deutso egoitzetan eta zentro berezietan, 4.647, horreen erdia hitzartutako plazak izanik. Zaintzaileei atsedena emoteko programari eutsi egiten jako, hiru Eguneko Zentrotan ordutegia handituz, zapatuetan eta domeketan be.

Adinekoentzako laguntzen hurrengo arloa diruizendapenari begira Mendekotasunaren prestazino eta dirulaguntzena da, 90;7 milioiko diruizendapenagaz. Aldundiak apustu argia egiten dau Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legea garatzearen alde. Hortaz, eutsi egingo deutso II eta III graduatan baloratutako mendekotasundunek prestazinoak jasoten jarraitu daien. Horrezaz ganera, inbertsinoak egiten jarraituko dau autonomia pertsonalerako zentroetan, Mendekotasun egoerara heltzea astirotzeko ahaleginean.

Desgaitasuna daben pertsonentzako laguntzak 59,5 milioi eurotara heltzen dira, aurreko urtekitaldian baino %5 gehiago. Aldundiak orain arteko zerbitzuei eutsi egiten deutse, aurreko urteko prezio berberetan. Horren ildotik, Ardanza Diputatu andreak, Bilduko ordezkariak halan galdetuta, ukatu egin dau bere Sailetik “kopago” politikak aplikatzen diranik.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

INGURUMEN SAILAREN AURREKONTUAK

Pilar Ardanazaren ostean, Iosu Madariaga Ingurumeneko Foru Diputatu jaunaren txandea etorri da. Sail horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren guztirako aurrekontuaren %6aa hartzen dau. Sail horrek inbertsino handiak aurreikusten ditu, Bizkaiko herritarren bizi kalidadean eta ongi izatean eragin zuzena izango dabenak.

Aurrekontuko partidarik behinenetakoa, ia 56 milioikoa, Ingurumen Azpiegiturena da. Partida hori batez be uraren kudeaketa iraunkorrera eta uri hondakinetara bideratuta dago. Horretarako behar izan daitezcan azpiegiturak egitea bultzatuko dau Sailak. Era berean, udalei lagundu egingo deutse Toki Agenda 21 deritxenak garatzen.

Hondakinen kudeaketarako egitarauan, Gabikerregaz batera, bultzatuko diran helburuak eta ekimenak 11 milioi eurotara heltzen dira. Ildo horretan, Tratamentu mekaniko biologikorako Plantea egitea azpimarratu behar da, balorizazinora heldu aurretik hondakinak birziklatzea bultzatuz.

Joaquín Colmenero Socialistas Vascos Taldeko batzarkide jaunari erantzunez, Madariaga Diputatuak esan dau “Ingurumen sailak apustu argia egiten dauela 5. edukinontzia jartearen alde, hondakin organikoa bildu eta konposta eginez.”

Era berean, Foru Diputatu jaunak esan dau bere Sailaren helburua dala “hondakinen kudeaketa iraunkorra sendotzea, Hondakinen Kudeaketa Integraleko eredia erabiliz, prebentzinoa helburu nagusitzat jarriz eta horren hurrengoko izan daitezcan berrerabilpena, birziklatze —konpostgintza horren barruan dala— aprobetxamentu energetikoa eta, azkenik, balorizatu bako hondakinak zabortegiratzea”.

Garapen iraunkorrerako udal politikak bultzatzeko partideak 3 milioi euroko diruizendapena dau, Toki Agenda 21 deritxenetako ekintza planetan sartutako proiektuak bultzatu eta suspertzeko. Ingurumen Sailaren helburuen artean dago be Bizkaian aisiarako esparruen sare zabala hedatzea eta mantentzea. Horretarako, bada, 2013. urtekitaldian ia berrehun mila euroko diruizendapena izango dau.

72,4 MILIOI EKONOMIA SUSTATZEKO

Imanol Pradales Diputatuak zuzentzen dauen Ekonomia Sustatzeko Sailak 72,4 milioiko diruizendapena izango dau datorren urtekitaldian, ekonomia sustatzeko eta lanpostuak sortzea bultzatzeko, batez be gazteen artean.

Batzar Nagusietan egindako batzorderatzean zehar, Pradales Diputatu jaunak azaldu egin dau bere Sailak atondutako aurrekontuan lehentasuna emoten jakela hiru estrategiari: ekintzaileen lana, barrikuntza eta Bizkaiko enpresen nazinoartekotzea, baita gazteen artean enplegua sustatzea be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ekonomia Sustatzeko Sailaren aurrekontuaren barruan, aitzazekoak dira Autoenpleguaren Sustapenerako egitarauak izan dauen gorakadea, egin-eginean %30ekoa, eta egitarau barria abiatu izana gizarte barrikuntza proiektuak dituen enpresak sortu eta garatzeko.

Aldundiak barrikuntza estrategikorako funtsa be sortu dau, erakundeen arteko lankidetzaz eskatzen daben proiektu estrategikoetan eta barrizailleetan inbertsinoak egiteko. Bizkaiko enpresak nazinoartekotzeko laguntzak hirukoiztu egin dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

Las comisiones informativas del proyecto de presupuestos de 2013 continúan en Juntas Generales con Acción Social, Medio Ambiente y Promoción Económica

Bilbao, a 26 de noviembre de 2012.

Los responsables de los diferentes departamentos forales han retomado hoy lunes, día 26 de noviembre, sus comparecencias informativas en Juntas Generales para dar cuenta de sus acciones y fondos asignados en el Proyecto de Presupuestos de 2013 de la Diputación Foral de Bizkaia. Concretamente, hoy ha sido el turno para Pilar Ardanza, Diputada de Acción Social; Josu Madariaga, diputado de Medio Ambiente, e Imanol Pradales, diputado de Promoción Económica.

La Diputada Foral de Acción Social, Pilar Ardanza, ha comparecido hoy para presentar los presupuestos de su Departamento, que supone el 43,5% del total del presupuesto de la Diputación para el próximo ejercicio 2013. La suma de las partidas dedicadas a personas mayores, las prestaciones y subvenciones de la dependencia y las destinadas a personas con discapacidad absorben el 70% del presupuesto total, que asciende a casi 453 millones de euros.

La Diputación ha optado, según Ardanza, “por el mantenimiento de los servicios sociales y no rebasar las líneas rojas”. En su opinión, “la apuesta por las personas, por priorizar las necesidades de las personas más vulnerables del territorio, como personas mayores, personas dependientes, infancia o personas con discapacidad, queda patente”.

La mayor partida del presupuesto de Acción Social para el próximo año está destinada a las personas mayores. La Diputación mantiene el mismo número de plazas en residencias y centros especializados, 4.947, la mitad de ellas concertadas. También mantiene el Programa de respiro con la ampliación del horario de tres Centros de Día, incluyendo sábados y domingos.

Tras las ayudas a las Personas Mayores, el segundo área con más recursos, 90,7 millones de euros, es el de prestaciones y subvenciones de la Dependencia. En este área, la Diputación apuesta por desarrollar la Ley de Servicios Sociales de Euskadi y mantendrá los esfuerzos para que las personas dependientes valoradas con los grados II y III sigan recibiendo sus prestaciones. Además, seguirá realizando inversiones para ofrecer servicios mediante centros de autonomía personal que frenen el avance de la Dependencia.

Las ayudas a personas con discapacidad ascienden a 59,5 millones de euros, un 5% más que el año anterior. La Diputación mantiene los servicios existentes hasta ahora con los mismos precios del año pasado. En este sentido, Pilar Ardanza, ha negado, a pregunta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de la portavoz del grupo de Bildu, la aplicación de políticas de “copago” por parte de su departamento.

LOS PRESUPUESTOS DE MEDIO AMBIENTE

Tras Pilar Ardanza, ha comparecido en comisión informativa el titular del Departamento de Medio Ambiente, Josu Madariaga. Con el 6% del Presupuesto total de la Diputación Foral de Bizkaia, este departamento prevé grandes inversiones que inciden directamente en la calidad de vida y el bienestar de la ciudadanía del Territorio.

Una de las principales partidas presupuestarias es, con casi 56 millones de euros, la destinada a Infraestructuras Ambientales, y que está dirigida de manera prioritaria a impulsar la gestión sostenible del agua y de los residuos urbanos, promoviendo la construcción de las infraestructuras necesarias, y a apoyar a los municipios en el desarrollo de las Agendas Locales 21.

Los objetivos y las acciones a desarrollar en el programa de Gestión de Residuos, en colaboración con Garbiker, ascienden a 11 millones de euros. En este campo, destaca la construcción de la Planta de Tratamiento Mecánico Biológico (TMB), que permitirá incrementar la fracción de residuos destinada al reciclaje con carácter previo a la valorización de los mismos.

A pregunta de Joaquín Colmenero, portavoz del grupo socialista en esta comisión, Madariaga ha afirmado que “Medio Ambiente apuesta claramente por la implantación del 5º contenedor personalizado para la recogida de la fracción orgánica y su reciclado como compost”.

Asimismo, el Diputado foral ha subrayado que el objetivo del departamento es “afianzar la gestión sostenible de los residuos basada en el modelo de una Gestión Integrada de Residuos, con la prevención como objetivo prioritario, seguido de la reutilización, el reciclaje incluido el compostaje, el aprovechamiento energético y, finalmente, el vertido de la fracción no valorizada”, ha asegurado.

La partida dirigida al impulso de las políticas municipales en favor del desarrollo sostenible se mantiene con 3 millones de euros, destinados al impulso y apoyo de proyectos incluidos en los planes de acción de las Agendas Locales 21. El Departamento de Medio Ambiente persigue también establecer y mantener en Bizkaia una amplia red de espacios de esparcimiento al aire libre. Para ello contará en 2013 con una dotación de casi doscientos mil euros.

72,4 MILLONES PARA PROMOCIÓN ECONÓMICA

Por su parte, el Departamento de Promoción Económica, que dirige el diputado Imanol



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Pradales, dispondrá de 72,4 millones de euros con el objetivo de promover la reactivación económica y la creación de empleo, sobre todo, entre las personas jóvenes.

Imanol Pradales ha explicado durante su comparecencia ante las Juntas Generales de Bizkaia, que este departamento ha diseñado el presupuesto dando prioridad a tres estrategias: el emprendimiento, la innovación y la internacionalización de las empresas de Bizkaia así como promover el empleo entre las personas jóvenes.

Dentro del presupuesto de Promoción Económica, destaca el aumento de la partida destinada al Programa de Apoyo al Autoempleo, que crece un 30%, y la puesta en marcha de un nuevo programa destinado a la creación y desarrollo de empresas con proyectos de innovación social.

La Diputación ha creado también un nuevo Fondo de 4 millones de euros para invertir en grandes proyectos estratégicos e innovadores que requieran de la colaboración interinstitucional. Se triplican, por otro lado, las ayudas a la internacionalización de las empresas de Bizkaia.
